

Umorea ardatz duen bide artistikoa *Antton Telleria*

Irati L., Intza E., Ainara F. eta Aitor R.



Antton Telleria Lopetegi 1993ko irailaren 17an jaio tako tolosarra euskal kazetari, musikari, aurkezle eta umorista polifazetiko da. Euskal Irrati Telebistako lanek nabarmendu dute, bertan, "Ze martxa!" eta "Akabo bakea" bezalako irratsaioetan parte hartu baitu eta telebistan, bere anaia Julenekin batera "Gure Kasa" saioko aurkezle moduan aritu baita. Egun, Mihiluzeko aurkezle da Ilaski Serranorekin batera.

Anttonek hainbat gai aztertzen dituzten bakarriketak garatu ditu, ikuspegi ausart eta umoretsuarekin. 2021eko martxoan "Nekatuak" estreinatu zuen, bere lehen ikuskizuna, bakarriketa hau barrea egiteko eta entzuleengan konfiantza sortzeko helburuarekin estreinatu zuen. Ondoren "NININI" aurkeztu zuen, bere hitzetan, egolatriaren oda bat eta zintzotasun-ariketa bat da, non metaforikoki biluzten den bere buruarekin duen harremanaz, izenaz, bikotekideaz eta komiko gisa duen karreraz.

Antton Telleriak lortutako arrakasta, hainbat alorretan nabarmendu izanaren emaitza da, eta denbora luzez arte desberdinetan, ikus-entzunezko komunikazioan eta musikan lan egiteaz gain, umorean ere murgildu da.

"Antzokiak luxu bat dira"



Komunikabide eta umore mundutik gain, musikazale sutsua da Antton. Perkusio ikasketetan jardun ondoren, Adi! musika taldeko bateria-jotzailea da eta hori gutxi ez balitz, Jai Nekin izeneko txaranga parte hartzen du.



Telebistako aurkezle eta kolaboratzaile bezala aldiz, "Gure Kasa" saioan parte hartu zuen, 2017tik 2020ra, eta horrela iritsi zen ikus-entzule askorengana. Bere lehen pausoak telebistan eman zituen, eta hori izan zen harrera zabala lortzen hasi zen unea.

Bere ibilbideko funtsezko pausoa umorista bezala egin zuen, eta "Barre Librea" saioan parte hartu zuen. Gainera, 2021ean "Nekatutak" monologoaren estreinaldia egin zuen, hau Filmin plataforma bidez ikusi ahal izan zen. Bakarriketa hau, filmineko lehen euskaraz publikatutako bakarriketa izan zen, eta horrez gain, artistaren lehen lana. Pauso hau emandakoan, bere umorezko ibilbide profesionala sendotu zuen.

Bakarriketak

NEKATUTAK izeneko ikuskizunean, Antton Telleria zuzentasunaren mugak esploratzen saiatuko da (ikuskizunaren izenetik hasita). Barre eginarazteko helburu bakar eta sakratuarekin, "delikatuak" izan daitezkeen zenbait kolektibo aipatuko ditu: Psikologoak, ETA, Ertzaintza...eta, nola ez, polemikoenak: Irakasleak

NININI Antton Telleriaren bigarren komedia ikuskizuna da. Nekatutak-en arrakastaren ostean eszenatokietara bueltan da, argi utzi nahi duen arren ikuskizun honek ez duela zerikusirik aurrekoarekin. Ikuskizun hau desberdina da. Konkretuki, okerragoa.

NININI egolatriari eginiko oda bat da, Anttonek bere buruaz hitz egingo baitu etengabe, baina baita zintzotasun ariketa bat ere: Ikuskizun honetan Antton biluztu egingo da. Metaforikoki eta metaforikoki soilik, denon hobebeharrez. Hitz egingo digu bere buruarekin duen harremanaz, bere izenaz, bere bikotekideaz, komikoa izateaz eta bertsolaria ez izateaz.

Egin barre berarekin edo egin barre berari. Nahi duzuna. Baina etorri ikustera.

Lehen urratsak

Antton Telleria hasieran Euskal Irrati Telebistan (EITB) hasi zen lanean. Gaztea irratian, "Akabo Bakea" izeneko programan aurkezle eta gidoilaria izan zen. Horrez gain, "Dida!" saioan parte hartu zuen, eta geroago "Baipasa" saioan kolaboratu zuen, Euskadi Irratian. Horrek aukera eman zion bere estiloa eta umorea lantzeko eta jendearekin hurbilago konektatzeko.





Euskal kulturaren aldeko konpromezua

Argi dagoena, Antton Telleriak euskal kultura babestu eta sustatu duela da. Bere ibilbidean zehar, Ikus-entzule euskaldunak ere irabazi ditu, baita kanpoan ere ezagun egin da, euskal identitatea eta kultura. Korrikan ere atera izan da lekukoa emanez euskararen alde. Horrez gain, maiatzaren 18an, Antton Telleriak eta Ilaski Serranok aurkeztu dute 2025 eko "Euskaraldia Lau Haizeetara" saio berezia. Euskalkiei bultzada ematearen helburuz. Ekintza huen, argi eta garbi erakusten diguten Anttonen euskararen aldeko konpromezu maila.

Musika

Hedabideetan egiten duen lanaz gain, musikarekiko zaletasun handia du Anttonek. Perkusioan trebatu ondoren, Adi! musika taldeko bateria-jotzailea da eta hainbat txarangatan aktiboki parte hartzen du, bere aldakortasun artistikoa erakutsiz. Musika munduan ere arrakasta izan du eta bere burua artista oso bezala aurkeztu du.

Komunikazioan, musikan eta umorean zituen talentuen konbinazioak Antton Telleria Euskal Herriko eszena kultural eta mediatikoan eragin handiko nortasun gisa sendotu du.



“Gure antzokietan beti gozo-gozo”

Txikitatik izan ahal zara hiztuna?

Hiztunegia ez naiz izan! Uste dut nahiko lotsatia izan naizela ni umetan, eta orain igual baita era, baina disimulatzen ikusi dut. Ni orokorrean, konfiantza hartzeko denbora behar izan duen pertsona bat izan naiz. Orduan umetan bereziki hiztuna ez nuke esango!

Zerk erakarri zizun ikus-entzunezko mundutik gehien?

Ez nuen oso argi, beraz horretan, beste gauza askotan bezala, neba-arrebari erreparatzeak lagundu zidan. Bera hiru urte zaharragoa izanik, erabaki horiek aurrez hartu behar izaten zituenez, erreferentetzat hartu ohi nuen. Baina egia esan, letretako batxilergoa egiten ari nintzela, hitz egiteko ahalmena nuela konturatu nintzen. Gustatzen zitzaidala, behintzat, bai!

Nolatan hasi zinen bertan?

Bidea oso sinplea izan zen, ikus-entzunezko ikasketak egiten ari nintzela, laugarren urtean, EHU-ko unibertsitatean, EITBko pertsona batzuk etorri ziren bekadunak hartzen zituztela esanez. Beraz, izena eman nuen, gaztean hasi nintzen, eta gaztean ari nintzela telebistatik deitu zidaten... Eta bata bestea ekarri du, gaur arte.

Nolakoa izan zen telebista edo irratitik zuzenekoetara egin zenuen jauzia?

Egia esango dizut, eta nire ustez, salto egite-gero, orden aproposena egin dudana da. Irratian hasteak aukera ematen dizu diskurtsoa apur-bat finkatzeko, edo, behintzat, ahozko jardunera, zuzenekoetara ohitzeko. Honek oinarri batzuk ematen dizkizu pantailetan hasi aurretik. Hala ere, gero telebistarako badago jauzia. Bat-batean eskuak dituzu mugitu egin behar direnak... Horrelako buruhauste batzuk izaten dira, baina siquiera salto hori ematerako, nik nabaritzen nuen irratiko aurre-prestakuntza hori. Isilik geratzeko arriskurik ez nuen ikusten behintzat!

Zure ikusleen gehiengoa zein probintzietakoa dela esango zenuke?

Hor datu zehatzagoak egongo dira, baina orotara gipuzkoarrak direla esango nuke. Euskaraz gehien hitz egin edo kontsumitzen dugunak garela esango nuke. Etxe ingurukoak, “toloxar” jendea!



Zure ibilbide guztia euskaraz egiteak oztopoak ekarri dizkizu?

Ez, oztopatu, oztopatuko nuke jendea gaztelaniaz hasi nahiko banu. Batez ere, gaizki hitz egiten dudalako. Orduan, lehenengo oztopoa hori izango litzateke. Baina euskaraz oztoporik bat ere ez, niri euskaraz egiteak ekarri dit lana eta areto batetik bestera ibiltzeko aukera... Eta horrez gain, askotan komentatu izan dugu, Euskal Herrian hobeto gaudela, jende gutxi dago zaletasun horiekin, beraz gure antzokietan gozo-gozo ingurukoekin egotea luxu bat da.

Gaztelaniaz bakarriketak egitea pentsatu ahal duzu noizbait?


Jo, ba ikuskizun berrian broma artean esaten dut. Nahi banu bakarriketa ehiza bezala batera eta bestera eta errepidean kilometro asko eginda badago aukera gaztelaniaz egiteko, baina.. Gauza bat esango dizut, tentatu gehiegi ez nau tentatu sekula, baina bueno, noizbait eskaintzaren bat edo beste jaso izan dut. Adibidez, berriena, LA RUINA izeneko podcastean izan zen. Gonbidatu bezala joateko eskatu zidaten eta bi komiko katalan zeudenez, oso fana naizena, ba joatea erabaki nuen. Eta nahiz eta ilusio handiarekin joan, gaztelaniaz hitz egite horrek, arrotz sentiarazi ninduen. Nahiz eta Bilbon izan, bazegoen euskaraz ez zekien jendea. Esan nahi dudana da, konturatzen ez garen arren, badaudela kode, hitz edo ikuspuntu batzuk euskaldunok partekatzen ditugunak, eta horrek etxeko sentiarazten gaituenak. Ba hor jabetu nintzen. Oso esperientzia polita izan zen eta oso pozik gogoratzen dut egun hura, baina arrotz puntu bat ere nabaritu nuen. Esanez bezala: ez dakit hau nire publikoa den!

Zenbat denbora behar izaten duzu gutxi gora behera bakarriketa bat sortzeko?

Ninini 2024ko irailean hasi nuen eta nekatutak 2023ko Martxoan bukatu nuen. Beraz bi data horien artean Urte eta erdi dago, baina kontuan hartuz ez naizela une oro horrekin buruan izaten, eta hilabete batzuk behar izan nituela aurreko bakarriketa ahaztu eta gogoberritzeko, urte bat iraun nuen gutxi gora behera. Hori ere, patxadaz hartu nuela kontuan izanik, eta horrez gain, bakarriketarekin aurrerantz joan heinean, gauzak aldatzen doazela kontuan harturik.

Badaukazu trukorik testu hori guztia ikasteko?

Ba ni hortan beti izan naiz nahiko ume ikastuna, eta gogoratzen naiz ikastolan txikitari nola irratsaio bat egin behar izan genuen, gidoiaz.. Baina ez, ikasteko ni beti izan naiz nahiko buru tamainakoa eta nahiz eta ez izan truko berezirik, erraz ikasten dut esan beharrekoa, behin eta berriz errepikatzen badut.



Nondik ateratzen dituzu bakarriketarako izenak?

Nik paperean baino, buruz egiten dudan ariketa bat izaten da. Bakarriketa idatzi ondoren edo bitartean, gauza da buruari bueltak ematea denbora guztian. NININI bakarriketarako adibidez, kalean ibiltzen nenbilen egun batean etorri zitzaidan burura izena. Oso ona iruditu zitzaidan, eta haxe izan zen izen egokiena. Oso ariketa polita da egia esan. Azken-finean, behar duzuna, bi edo hitz batez osatutako zure bakarriketaren laburdura izugarri bat da, eta ez da erraza izaten egokiena topatzea. Norberarekin, barne borroka bat sortzen da hainbeste hitzen artean egokiena topatzen saiatzean.

Txiste bat esan ondoren inork ez badu barrerik egiten, zer egin ohi duzu?

Boa, ba nik txistua irenstea dut. Irentsi, eta hurrengo mugimenduan pentsatzen hasten naiz disimulatzen saiatzen. Baina emanaldiak igarotzen doazen heinean, zer ekidin edo zer azpimarratu ikusten zoaz, honela, aurrekoa baino bakarriketaren bertsio hobe bat sortzen. Baina, bai, oso ohikoa den kontua da hori. Zeren, zure buruan barregarria izan daitekeen bat bat, beste norbaitentzat ez-barregarria izan daiteke. Pasatu liteke ere, txistea kontatu eta, gaizki kontatu dudalako, jendeak ez ulertzea txistea edo ez jakitea txistea izan denik.

Momentuan bertan asmatzen ahal dituzu datu edo esaldiak?

Nik normalean dena nahikotxo lotuta eramaten dut. Baina akaso gustatuko litzaidake hemendik aurrera, dena hain lotuta eraman beharrean, inprobisatuago edo libreago egotea. Egia da, publikoa urbila edo beroa baduzu, hor beste askatasun mota bat sentitzen duzula beste batzuetan egoten ez dena. Kasu horietan, harrotu egiten naiz batzuetan, eta horrek gauza berriren bat sartzeko aukera ematen du.

Mihiluzen eta irratan ere ari zara lanean eta badakigu hiru lan horiek edukitzeak lan asko eragiten duela. Nola kudeatzen duzu denbora?

Ba aurtengo urtarrilean, oso ideia ona izan nuen: Irratian murrizketa eskatzea. Orduan, orain irratan lan-ordu erdian egiten ditut eta mihiluzen nahiz eta normal aritu, bakarriketak hilabetea lau-bost aldiz izaten ditudanez bakarrik, oso gustura bizi naiz egia esan.

Zein esango zenituzke direla mihiluzen entzundako zure euskalki gustukoenak?

Oñatiarra esango nuke dela nire ahulgunea. Izan ere, unibertsitatera iritsi nintzenean konturatu nintzen, deskubritu gabeko euskalki asko nituela oraindik itxaroten. Eta bertan, gehien harritu nindutenak, oñatiarra, ondarrutarra eta zarauztarra izan ziren. Eta nahiz eta oñatiarra ia menperatu, ondarrutarra belarria zorrotz jarrita ulertu eta zarauztarra gustatu, nire esperientzia oso aberatsa izan zela pentsatzen dut.



(txistea) Zergatik ez zenuen NININI kolonia atera azkenean?

Kar kar kar! Jo, ba proiektu dibertigarri hau, Markel Irigodas diseinatzaile finarekin hasi nuen. Beregana jo nuen kartela diseinatzeko, eta kartelaz gain, bakarriketaren berri emateko, zerbait barazia egiteko proposatu zidan. Beraz, broma bat bezala hartu genuen, baina gero jendeak esaten zidan: Ba nik erosiko nuen salgai egongo balitz!

Egia esan, whatsappak eta mezu dexente iritsi zitzaizkidan jendearengandik. Eta hori niretzat onena da. Jendeak gezurra dela pentsatzea, gero beraien buruari kontra egitea eta norberarekiko barneko eztabaida hori piztea.

Etorkizunerako proiektu zehatzik ba ahal duzu?

Oraingo, Irratian eta Mihiluzen jarraitzea, eta horrez gain begiz jota dudana da, ba ikuskizun berri hau, nekatutakekin egin nuen bezala, ba zuzenekoan grabatzea. Beraz, orain horri forma ematen ari gara: Zein antzokitan, zein datatan... egingo dugun pentsatzen hasteko. Zeren, biraren ibilbide estandarra horrela izaten da. Bakarriketa estreinatu, herrietan zehar ibili, eta azkenik, emanaldi bat edo bi grabatuta utziz, ibilbide horri amaiera ematea da azken urratsa.

Espero dut dena txukun ateratzea. Eta hori ez bada ateratzen, behintzat,, perfumea edo aterako dugu! Kar kar kar

Eskerrak

Laburbilduz, Antton Telleria euskal kultur eszenako pertsonaia nabarmena da. Komunikabideetan, umorean eta musikan duen talentua bateratuz, publikoari proposamen askotarikoak eta kalitatezkoak eskaintzeko ahalmena duena.

Mila esker guztiagatik Antton!

